# ALDIZKARIA

korrika.eus

aek

# 23.korrika

**Irundik Baionarat** 2024ko martxoaren 14tik 24ra



HARRO HERRI


Jarraitu Korrika zuzenean
NAIZen eta NAIZ irratian!
naiz.eus | irratia.naiz.eus
naiz:
aek
23.korrika
HARRO
HERRI

***Gauden harro garenaz, eta egiten dugunaz.*** *Bete ditzagun etxe eta kaleak euskaraz. Harro plazan, online zein kanpoko bizitzan.*

# *Harro herri, eta harro KORRIKAn!*

## AURKIBIDEA

**Mezua** .......... **4**
**Ibilbidea** .......... **6**
**Omendua** .......... **14**
**KORRIKA dendak** .......... **16**
**Korrika Laguntzailea** .......... **18**
**KORRIKA hasiera. Irun (2024-03-14)** .......... **20**
**Abestia** .......... **22**
**Korrika Munduan** .......... **24**
**Irungo ekitaldia** .......... **26**
**Korrika Kulturala** .......... **28**
**KORRIKA bukaera. Baiona (2024-03-24)** .......... **30**

EUSKADI FUNDAZIOA

beralan
banaketa & logistika
Telleria etorbidea 1
20140 ANDOAIN
GIPUZKOA
Tel.: 943 30 04 32






# Mezua

*Harro herri, euskaraz jakin zein ez, har dezagun dimentsio orotan eragiteko konpromisoa, herria batuta. Harrotasunez!*
*Konplexuak gainetik kendu,*
*mugi dezagun euskararen herria,*
*ingurua mugiarazi arte.*

*Harro hadi Kantauri itsasoa,*
*Arabako mahats, Bardeako buztin.*
*Harro zite Pirinioetako elur,*
*Meatzaldeko burdina.*
*Elkarrekin nahi ditugu pausoak egin,*
*espazio berriak irabazi eta,*
*hitzez zein ekintzez, aldarri egin.*

*Gauden harro garenaz, eta egiten dugunaz. Bete ditzagun etxe eta kaleak euskaraz. Harro plazan, online zein kanpoko bizitzan.*
*Harro herri, eta harro KORRIKAn!*

*Enorgullécete, pueblo;*
*aun cuando no sepas euskera,*
*adoptemos, unidas y unidos,*
*el compromiso de actuar*
*en todos los ámbitos.*
*¡Con orgullo!*
*Sacudámonos los complejos*
*y movamos el pueblo del euskera, hasta movilizar nuestro entorno.*

*¡Alzaos! Mar Cantábrico, viñedos*
*de Araba, y arcilla de Las Bardenas.*
*¡Levantaos! Nieve de los Pirineos,*
*y hierro de la Zona Minera.*
*Al unísono, ansiamos caminar,*
*ganar nuevos espacios y, con palabras*
*y acciones, proyectar nuestras reivindicaciones.*

*Sintámonos satisfechas*
*y satisfechos de lo que somos*
*y de lo que hacemos.*
*Llenemos los hogares*
*y las calles de euskera.*
*Con orgullo, en todas nuestras relaciones,*
*online o en la calle.*
*¡Enorgullécete, pueblo, y muestra*
*tu orgullo en KORRIKA!*






*Soyons fières et fiers, peuple basque,
que nous soyons bascophones ou pas!
Prenons l’engagement d’agir dans tous
les domaines, en peuple uni.
Avec fierté! Libérons-nous de nos complexes,
activons le peuple de l’euskara,
remuons ciel et terre.*

*Soulevez-vous, Mer de Biscaye,
vignes d’Alava, argile des Bardenas!
Soulevez-vous, neige des Pyrénées,
fer du bassin minier!
Avançons ensemble, pour gagner de
nouveaux espaces et nous manifester
en paroles et en actes.*

*Soyons fières et fiers de ce que nous
sommes et de ce que nous faisons.
Inondons d’euskara maisons et rues.
Soyons fières et fiers sur la place publique
comme dans le monde virtuel.
Sois fier peuple basque,
sois fier de ta Korrika!*






Bermeo
Santurtzi
Getxo
Mungia
Gernika
Ondarroa
Deba
Trapagaran
Derio
Bilbo
Zalla
Basauri
Galdakao
Ermua
Elgoibar
Igorre
Durango
Eibar
Azkoitia
Artziniega
Laudio
Elgeta
Arrasate
Amurrio
Urduña
Zuia
Leintz Gatzaga
Legutio
Urkabuztaiz
Araia
Langraiz
Dulantzi
Agurain
Argantzon
Gasteiz
Trebiñu
Kanpezu
Urizaharra
Kripan
Guardia
aek
23.korrika
Irundik Baionarat 2024ko martxoaren 14tik 24ra
HARRO HERRI


Baiona
Biarritz
Irun
Donibane
Lohizune
Uztaritze
Hazparne
Donapaleu
Donostia
Zarautz
Usurbil
Oiartzun
Senpere
Itsasu
Sara
Hernani
Lesaka
Zestoa
Andoain
Urnieta
Goizueta
Elizondo
Baigorri
Larzabale
Urdiñarbe
Maule
Donibane
Garazi
Beasain
Lekunberri
Larraintzar
Zubiri
Garralda
Ezkarotze
Altsasu
Irurtzun
Iruñea
Agoitz
Lizarra
Gares
Zangoza
Tafalla
Lodosa
Faltzes
Castejon
Tutera

## MARTXOAK 14, OSTEGUNA

| | |
|---|---|
| Irun | 16:00 |
| Hondarribia | 16:37 |
| Irun | 17:10 |
| Hendaia | 17:26 |
| Ziburu | 18:45 |
| Donibane Lohizune | 19:08 |
| Azkaine | 19:40 |
| Itsasu | 21:58 |
| Kanbo | 22:43 |
| Uztaritze | 23:29 |

## MARTXOAK 15, **OSTIRALA**

| | |
|---|---|
| Hazparne | 00:47 |
| Donapaleu | 04:11 |
| Arüe | 05:29 |
| Maule | 06:53 |
| Urdiñarbe | 07:19 |
| Larzabale | 09:20 |
| Donibane Garazi | 10:58 |
| Azkarate | 11:24 |
| Baigorri | 12:16 |
| Erratzu | 14:14 |
| Arizkun | 14:34 |
| Elizondo | 15:08 |
| Irurita | 15:26 |
| Eugi | 18:23 |
| Zubiri | 19:02 |
| Erro | 20:00 |
| Lintzoain | 20:19 |
| Garralda | 21:57 |
| Abaurrepea | 23:11 |
| Abaurregaina | 23:30 |

## MARTXOAK 16, **LARUNBATA**

| | |
|---|---|
| Eskaroze | 00:54 |
| Nabaskoze | 03:10 |
| Domeñu | 04:51 |
| Zangoza | 06:51 |
| Oibar | 07:36 |
| Irunberri | 08:39 |
| Artieda | 09:25 |
| Agoitz | 10:54 |
| Urrotz | 11:52 |
| Egues | 13:01 |
| Uharte | 13:28 |
| Sarriguren | 13:51 |
| Burlata | 16:44 |
| Atarrabia | 17:04 |
| Iruñea | 17:14 |
| Antsoain | 17:29 |
| Iruñea | 17:43 |
| Artika | 18:05 |
| Berriozar | 18:16 |
| Barañain | 19:15 |
| Zizur Nagusia | 19:38 |
| Noain | 20:37 |
| Biurrun | 21:48 |

TXIKI POLIT
PENTSIOA
TABERNA
JATETXEA
Musika Plaza z/g 20.800 **Zarautz**
Tel.: **943 83 53 57**



| | |
|---|---|
| Eneritz | 22:29 |
| Obanos | 23:04 |
| Gares | 23:22 |
| Mendigorria | 23:54 |

## MARTXOAK 17, **IGANDEA**

| | |
|---|---|
| Artaxoa | 00:55 |
| Tafalla | 02:03 |
| Miranda de Arga | 03:55 |
| Faltsez | 05:31 |
| Martzilla | 07:47 |
| Alesbes | 08:38 |
| Cadreita | 09:45 |
| Castejon | 10:33<br>10:339 |
| Tutera | 12:24 |
| Cascante | 13:35 |
| Tutera | 14:47 |
| Arguedas | 16:18 |
| Cadreita | 17:22 |
| Milagro | 18:05 |
| Azagra | 19:25<br>19:255 |
| San Adrian | 19:58 |
| Andosilla | 20:23 |
| Carcar | 20:49 |
| Lodosa | 21:48 |
| Sesma | 22:45 |

## MARTXOAK 18, **ASTELEHENA**

| | |
|---|---|
| Allo | 00:10 |
| Lizarra | 01:09 |
| Murieta | 02:53 |
| Antzin | 03:12 |
| Acedo | 03:45 |
| Kanpezu | 04:54 |
| Genevilla | 05:26 |
| Lapoblacion | 06:20 |
| Meano | 06:34 |
| Kripan | 07:05 |
| Elvillar | 07:36 |
| Guardia | 08:15 |
| Leza | 08:50 |
| Urizaharra | 10:25 |
| Trebiñu | 11:56 |
| Argantzon | 12:55 |
| Langraiz | 13:45 |
| Zuhatzu<br>Kuartango | 15:09 |
| Izarra | 16:13 |
| Murgia | 17:02 |
| Abetxuko | 19:33 |
| Gasteiz (Alde Zaharra) | 21:58 |
| Elorriaga | 23:11 |





## MARTXOAK 19, **ASTEARTEA**

| | |
|---|---|
| Dulantzi | 00:16 |
| Dallo | 01:03 |
| Zuhatzu - Donemiliaga | 01:39 |
| Agurain | 01:59 |
| Erdoña | 02:35 |
| Zalduondo | 02:56 |
| Araia | 03:20 |
| Egino | 04:12 |
| Ziordia | 04:33 |
| Olazti | 04:47 |
| Altsasu | 05:13 |
| Bakaiku | 06:09 |
| Etxarri Aranatz | 06:27 |
| Arbizu | 07:07 |
| Lakuntza | 07:14 |
| Uharte Arakil | 07:38 |
| Hiriberri | 08:25 |
| Irurtzun | 09:13 |
| Latasa | 09:34 |
| Oskotz | 10:24 |
| Eritzegoiti | 11:09 |
| Gelbentzu | 11:42 |
| Larraintzar | 12:14 |
| Beruete | 13:52 |
| Aldatz | 14:24 |
| Etxarri | 14:31 |
| Mugiro | 14:50 |
| Lekunberri | 15:03 |
| Uitzi | 15:39 |
| Leitza | 16:31 |
| Goizueta | 18:38 |
| Hernani | 20:20 |
| Lasarte-Oria | 22:15 |
| Usurbil | 22:53 |

## MARTXOAK 20, **ASTEAZKENA**

| | |
|---|---|
| Orio | 00:02 |
| Zarautz | 00:43 |
| Zumaia | 02:03 |
| Zestoa | 04:04 |
| Azkoitia | 05:31 |
| Bergara | 07:36 |
| Elgeta | 08:34 |
| Ermua | 09:58 |
| Eibar | 10:30 |
| Soraluze | 11:15 |
| Elgoibar | 12:09 |
| Mutriku | 14:11 |
| Ondarroa | 15:03 |
| Markina | 16:21 |
| Munitibar-Arbazegi-Gerrikaitz | 17:45 |
| Lekeitio | 19:36 |
| Elantxobe | 21:37 |
| Gernika | 23:04 |

komunikazio grafikoa
Lankopi
comunicación gráfica
Colón de Larreátegui, 16 • BILBAO
www.lankopi.eus

Bidea
elkarrekin eginez.
AUTOBUSES
LA UNION
100
urte

aek
23.korrika
HARRO HERRI
Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

# Harro Nafarroa euskararen bidean

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

euskarabidea

## MARTXOAK 21, **OSTEGUNA**

| | |
|---|---|
| Bermeo | 01:31 |
| Mungia | 03:56 |
| Gorliz | 05:43 |
| Plentzia | 06:08 |
| Getxo | 07:29 |
| Leioa | 08:37 |
| Derio | 10:20 |
| Galdakao | 12:33 |
| Basauri | 13:55 |
| Arrigorriaga | 14:58 |
| Bilbo | 16:59 |
| Barakaldo | 20:31 |
| Sestao | 21:52 |
| Portugalete | 22:08 |
| Santurtzi | 22:40 |
| Trapagaran | 23:18 |
| Ortuella | 23:55 |

## MARTXOAK 22, **OSTIRALA**

| | |
|---|---|
| Abanto | 00:27 |
| Muskiz | 01:18 |
| Zalla | 03:51 |
| Gordexola | 05:29 |
| Artziniega | 06:25 |
| Aiara | 07:56 |
| Urduña | 09:14 |
| Amurrio | 10:12 |
| Laudio | 11:27 |
| Arakaldo | 12:35 |
| Ugao | 13:09 |
| Zeberio | 13:46 |
| Areatza | 15:01 |
| Igorre | 15:38 |
| Dima | 15:59 |
| Amorebieta-Etxano | 17:39 |
| Elorrio | 20:13 |

edonor
Euskal Herriko arte-hezkuntza
instituzionalizatzeko prozesuak
1978–1991
denok

inor ez
2024.02.02—2024.09.01
ARTIUM MUSEOA
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco
Frantzia kalea 24
01002 Vitoria-Gasteiz
artium.eus

| | |
|---|---|
| Durango | 21:56 |
| Mañaria | 23:08 |

## MARTXOAK 23, **LARUNBATA**

| | |
|---|---|
| Otxandio | 00:12 |
| Legutio | 01:12 |
| Gatzaga | 02:24 |
| Arrasate | 03:35 |
| Oñati | 04:34 |
| Zumarraga | 06:54 |
| Gabiria | 08:05 |
| Idiazabal | 09:37 |
| Beasain | 10:57 |
| Ordizia | 11:48 |
| Alegia | 13:14 |
| Ibarra | 14:13 |
| Andoain | 15:57 |
| Urnieta | 16:42 |
| Hernani | 17:25 |
| Astigarraga | 17:54 |
| Donostia | 19:22 |
| Pasai Antxo | 23:01 |
| Lezo | 23:33 |
| Orereta | 23:52 |

## MARTXOAK 24, **IGANDEA**

| | |
|---|---|
| Oiartzun | 00:33 |
| Lesaka | 03:25 |
| Bera | 04:01 |
| Sara | 05:17 |
| Senpere | 06:09 |
| Arbona | 07:38 |
| Biarritz | 08:07 |
| Angelu | 08:45 |
| Baiona | 09:17 |
| Hiriburu | 09:51 |
| Mugerre | 10:22 |
| Baiona | 12:29 |

Ezagutu ezazu:
enpresaBIDEA
enpresa eta ekonomia-ekosistema kohesionatu eta ikusgarri egiten duen euskarazko egunkaria

ADARRA
LAN TRESNAK - SUMINISTROS INDUSTRIALES

# Omendua

23. KORRIKAn, Azterketak Euskaraz kolektiboa omendu dugu, edo, zehazki, baxoa eta brebeta probak euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak.

Euskara da haien aldarria, KORRIKArena bezalaxe; beren ikasketen une erabakigarri batean, herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egiten dute, Frantziako Gobernuaren aginduen gainetik eta beren notetan ondorioztatu kalteak onarturik.

Azterketak Euskaraz kolektiboa gazteek osatua da, guraso zein irakasleak bidelagun dituztelarik gatazkan. Euskararen ekintzaile dira; haiek dira protagonista, eta, haien bidez, 35 urtean hainbat belaunaldiren lana aitortzeko aukera dugu.

Aitortza hau haien egoera ezagutzera emateko bozgorailua izan daiteke: Euskal Herri osoan, eta hemendik kanpo ere, jakin dezatela gazte horiek egun ezin dutela ikasketen zati garrantzitsu hori gure hizkuntzan burutu. Gainerako gazteentzat ere eredugarri izan daiteke ikustea egoera okerrenetan ere hainbat ikaslek ahalegina egiten dutela euskara hautatzeko.

Omenaldi-ekitaldia urtarrilaren 25ean izan zen, Hondarribiko Itsas Etxea Auditorioan. Bertan Oihaletxea dokumentala (Lander Garrok zuzendua) aurkeztu zen, non Azterketak Euskaraz kolektiboa osatzen duten Seaskako ikasle, irakasle, guraso eta ikasle ohien testigantzak jasotzen diren.



Iturrama Auzoan,
Fuente del Hierro kalea 4,
IRUÑEA 31008
Tel.:/Faxa: 948 17 31 50
**www.ekodendaekia.com**
ekodenda ekia

ALKIZABAL

errigora

errigora.eus

# Eutsi gureari!

## Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

**otsailak 25 - martxoak 13**




Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.

# KORRIKA dendak

**Lekukoa eskuan, KORRIKA buruan... eta KORRIKA materiala soinean!** Aurreko edizioetan bezala, aurten ere euskararen ekimen erraldoiari atxikimendua erakuts diezaiokegu arropa eta osagarrien bidez; eta horiek erostea arras erraza da.



Alde batetik, KORRIKA denda fisikoak baditugu: Beasainen, Bilbon, Donostian, Gasteizen, Iruñean zein Santurtzin (ordutegiak eta helbideak ikusgai daude webgune honetan: korrika.eus/dendak); eta, bestetik, Korrika online denda dugu (webgune berean, denda.korrika.eus).

Halaber, ez ahaztu material-salmenta ere egongo dela martxoaren 24an Baionan!







urbil_cc

www.urbil.es

**Harro Urbilen,**
**Harro herri,**
**eta Harro KORRIKAn!**

URBIL

aek 23.korrika HARRO HERRI
Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra


GORLA
AUTO
GROUP
Mercedes-Benz
E 3441 MMN
GORLA AUTO GROUP
KORRIKArekin bat!

# Korrika Laguntzailea

## 11.000 baietz!

Berriro ere, zure laguntzari esker zabalduko dugu euskararen aldeko mezua. Bide luzea dugu aurretik, eta, administrazioei dagokienez, esan behar dugu euskaltegi eta gau-eskolei bideratzen dizkieten baliabideak ez direla nahikoak. Hala, KORRIKAren helburu garrantzitsuenetako bat da euskalduntze-alfabetatzerako bitartekoak eskuratzea. 23. KORRIKAk jasoko duen dirua, beraz, Euskal Herri osoko gau-eskolei eta euskaltegiei laguntzeko erabili nahi dugu.

Korrika Laguntzaileak KORRIKAren zutabe nagusietako bat dira. Aurten ere laguntza bera eskatzera gatoz; hau da, 23. KORRIKAren Korrika Laguntzaile izan zaitezen nahi dugu. 15 euroren truke, edizio honetako pina eta txartel birtuala* jasoko dituzu, eta abantaila andanaz gozatzeko aukera ere izango duzu: asteroko zozketak, AEK-ko euskaltegi eta barnetegietan deskontuak, bestelako deskontuak... (informazioa eta zerrenda osoa, korrika.eus webgunean).

***Aurten, baietz 11.000 Korrika Laguntzaile***




* Edizio honetan, KORRIKAren telefonorako aplikazioan izango duzu zeure txartel birtuala



# Izan Korrika laguntzailea

**EKIN KORRIKARI!**
15 euroren truke, garrantzitsuena lortuko duzu: AEKren euskaltegiei laguntzea. Horrez gain, pina eta abantailei buruzko informazioa jasoko dituzu.

HARRO HERRi aek




aek
23.korrika
HARRO HERRi
**Irundik Baionarat**
2024ko martxoaren 14tik 24ra

**korrika.eus**

# KORRIKA hasiera. Irun (2024-03-14)

## Martxoaren 14an, Irunen hasiko da 23. KORRIKA

Hiri batzuetan ez dago euskaraz bizitzerik; horietako bat da Irun, baina bertako askok euskaraz aritu nahi dute: nor berean eta beretik eragiten saiatzen dira. KORRIKA handik abiatzea aukera eta aterki izugarria da euskaldun guztiok parada izan dezagun agenda partekatu bat sortzeko eta herria hauspotzeko.

***"Ohore eta plazera, apustua eta erronka. Lekukoa harro altxatzeko prestatzen ari gara, aurreiritziak astintzeko asmotan"***, adierazi du KORRIKAren lehen eguneko arduradun Maddi Sanzek.

Euskaltegia, herria, eragileak eta Udala dantzan jarri ditu KORRIKAren hasierak aurten. ***"Guretzat erronka zoragarria da lehen kilometro horrek dakarren guztia: ekitaldiak, jendearen babesa, antolakuntza... Euskaldun harro asko gaude Irunen, eta Korrikak espazio zein abagune egokiak eman dizkigu gure artean batu eta kaleak euskaraz eta kulturaz bete ditzagun"***, gaineratu du Sanzek.



Euskararen aldeko ekimen erraldoiari hastapen ederra eskaini nahian, egun osoko egitaraua prest dago martxoaren 14rako: goizean, Gazte KORRIKA —Eusliderrak egitasmoari esker— eta kale-animazioa; arratsaldean, KORRIKA abiatuko da, San Juan plazatik, 16:00etan; hortik aurrera, Irungo eta Hondarribiko kaleak euskararen aldeko urratsez betetakoan eta lekukoa Hendaian utzita, musikak girotuko ditu ondoko orduak, Burrunba elektrotxarangaren eta Esne Beltza zein Bad Sound eta lagunak taldeen kontzertuei esker.

INTZA


cikautxo
KAUTXUZ ETA PLASTIKOZ EGINDAKO
SOLUZIO BERRITZAILEAK
SORMENERAKO GAITASUNA, EKIMENA,
KONPROMISOA ETA ARDURA
CIKAUTXON ETORKIZUNA
PERTSONEK ERAIKITZEN DUTE
AUTOMOBILGINTZA
ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
MATERIAL ELASTIKOAK
Cikautxo S.Coop.
Magdalena Auzoa, 2-B
E-48710 BERRIATUA
Tel.: +34 946 133 000
Fax.: +34 946 133 002
cikautxo@cikautxo.com
www.cikautxo.com


IKASIZ
GOZA
EZAZU
aek
23.korrika
HARRO
HERRI
Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra
DONOSTIA SAN SEBASTIAN
AQVARIVM

# Abestia

Maite Arroitajauregi "Mursego" musikariaren gidaritzapean sortu da 23. KORRIKAren kanta. Izan ere, nabarmendu beharra dago pertsona askok osatutako lantalde batek sortu duela.

6-7 zati ezberdin ditu; kantuaren barruan 3 kanta eta *minisinfonia* moduko zerbait oharkabean. Kantu berritzailea denik ezin uka. ***"Letratik abiatu ginen kantu pop bat egiteko, eta behin hezurdura eta melodia nagusia argi samar genituela, hasi ginen konponketak proposatzen eta jolasten, askotariko ideiak botatzen eta eztabaidatzen, ados egon garen arte % 100ean".*** Berrehunka pista zirriborratu eta milaka aldiz entzun eta gero, emaitza" pop barroko kantu bat" izan da.

Harrerari dagokionez, kontuan izan dute horrelako abesti bat publiko zabalari zuzenduta dagoela, eta berdin balio behar duela umeek abestu eta dantzatzeko, lagunarteko festarako zein errepidean denok bat eginda oihukatzeko.



## Bideoklipa

Amaia Badiola Elgezabalek egin du, eta, batez ere, aurreko edizioetako artxiboko irudiz osatuta dago: 23 ediziok eta 43 urtek askotarako ematen dute; besteak beste, ikusteko zer nabarmenak diren KORRIKAn mota guztietako bilakaerak: gizartea, aldarrikapenak, estetika, komunikatzeko erak... baita kontu horiek guztiak jasotzeko teknikak ere. Izan ere, denboraren aurrera-egite horrek euskararen erresistentzia ere irudikatzen du.






*Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!*

*Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!*

*Harro herri
Hona gu euskaldunak
Euskararen lagunak
Hats eta izerdi*

*Herri harro
Sarean ta kalean
Bihotza pil-pilean
Tik-tak, tik-tak, tik-tok*

*Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
Lurrarekin batera
Jira eta bira*

*Ku kukulumuxu
Koko kokoriko
Euskararen sarea
Ez da eroriko*

*Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
Hizkuntzak hiztunekin
Aberasten dira*

*Ku kukulumuxu
Ko-ko kokoriko
Algara batean
Edo afoniko*

*Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!*

*Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!*

*Ahoa bizi-bizi
Prest belarriak
Eskuz esku heldurik
Lehertu eztarriak*

*Argazki bat ipini
lasterka egina
Bihotz, muxu, irrintzi
Nik bai eragina!*

*Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
Lurrarekin batera
Jira eta bira*

*Ku kukulumuxu
Koko kokoriko
Euskararen sarea
Ez da eroriko*

*Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
Hizkuntzak hiztunekin
Aberasten dira*

*Ku kukulumuxu
Koko kokoriko
Algara batean
Edo afoniko*

*Onlineko txatean
Ez zirri ez mirri
gorputzen epelean
ikimilikilkirri*

*Esku bat nirea
Bestea zurea
Eman bostekoa
Izan dadin gurea*

*Ikasten bazabiltza
Egin gurekin
Elkar ulertu arte
Ekin ta ekin*

*Hizkuntzak ikastera
Bagoaz kanpora
Zergatik ez herrian
Euskara ahora*

*Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!*

*Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!*

*Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!*

*Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!*

*(irakurtzeko)
Ez badigute ematen,
arrazoia guri
Su emango diogu,
haien legeari*

BILBOTEX®
1997
www.bilbotex.com

CASA ECEIZA®
TOLOSA

# Korrika Munduan

## Munduari so

KORRIKAk Euskal Herriko mugak zeharkatuko ditu. Aurten ere, hizkuntza gutxiagotuak ardatz, erronka luzatu die munduko KORRIKAzaleei: KORRIKAren mezua ahalik eta hizkuntza gutxiagotu gehienetan itzultzea. AEK-KORRIKAk leku berezia egin nahi die hizkuntza horiei, “Bagarelako, herriak harro!”.

Horrez gain, urtero legez, munduan zehar hainbat KORRIKA antolatu dira, baita horien inguruko ekitaldiak ere. 22. Korrikak 4 kontinente eta 45 hiri hartu zituen, eta 23. KORRIKAk ere antzeko bideari ekin dio. Edizioz edizio, horretan aritzen dira munduan zeharreko euskaldun eta euskaltzaleak, eta ekimen ederrak egiten dituzte.




*Correllengua*, katalanaren alde.

Guk www.korrika.eus webgunean eta sare sozialetan emango dugu horien guztien berri.

Halaber, azken urteotako hitzarmenari eutsita, Etxepare Institutuak ere bere gain hartu du KORRIKAren leloa munduan barreiatzeko konpromisoa. Horretarako, besteak beste, unibertsitate-esparruko irakurletzetan lanketa berezia egiten ari da; bideo-lehiaketa ere antolatu dute.



*Rith*, gaelikoaren alde.




*Correlingua*, galizieraren alde.

Saskiak - Loteak - Azokak - Ekimenak
EL FOGÓN DE ÁLAVA
araban egina
egina
100%
araban
BERTAKO PRODUKTUEI BABESA
www.elfogondealava.com
615 709 689 - 615 709 690

Mendia Optika
www.mendiaoptika.com
Gasteiz
Andre Maria Plaza · Olagibel 33, Los Herrán bidegutzea

nekatur
Euskadiko landa ostatuen elkartea
Asociación de alojamientos rurales de Euskadi
www.nekatur.net

alcor
GRUPO




BITARLAN
INFORMATIKA ETA WEB ZERBITZUAK



# Paperezko bizitzak

## Irungo ekitaldia

AEKren xedea da Euskal Herriko biztanle guztiak euskaraz eroso bizi ahal izatea eta, norabide horretan, Euskal Herri osoan hiztun aktiboak sortzea dagokigu, baita doako zerbitzua izan dadin eragitea ere. Doakotasuna justiziazkoa da;  berezko hizkuntza ezagutzea eskubideen eremuan kokatzen dugu, eta, beraz, botere publikoek eskubide hori bermatu behar dute.

2018tik abandonaturik eta eskubiderik gabe dagoen pertsonen kopurua emendatzen joan da. Zoritxarrez, herritar horiek ezin dute euskara doan ikasi. Hemen eta orain, paperik ez izatea izatearen beraren ukazioa baita. Inor ez delako ilegala, lau haizetara aldarrikatu nahi dugu denok eskubide berberak izatea.

Horiek horrela, Euskal Herriko administrazio nagusiei dei egiten dizuegu. Zeuok zarete eskubideen bideratzaile, bermatzaile, eta eredu izatea dagokizue. Unea da euskal herritar orori euskara ikasteko bidea doakoa izan dakion neurriak hartzeko.




Paperik gabe, ez baikara, ez baikaude. Herritarrontzat, denontzat,  euskararen komunitate zabala osatzen dugunontzat. Inor kanpoan utzi gabe. Har dezagun dimentsio orotan eragiteko konpromisoa, herriaz HARRO, batuta. Mugi dezagun euskararen herria, ingurua mugiarazi arte.

***AEK-ko Artezkaritza Kontseilua***



sasoi
eraikuntzak

IGELTSEROTZA ORO HAR
Zure Obren eta Eraberritze-lanen kudeaketa integrala
ARDATZ Igeltserotza S.L.
Tel.: 659 124 474 · 658 289 777 · 665 579 235
E-posta: ardatz@ono.com · 31600 BURLATA (Nafarroa)
www.ardatz.jimdo.com

Anko® conservas artesanas
P.I. Las Navas, Cl Vía Láctea 4
31515 CADREITA
Tfn.: 948 83 61 10 | Fax: 948 98 04 02
anko@anko.es | www.facebook.com/ankosl
www.anko.es
*Zuzeneko salmenta fabrikan*

» Babestu **BERRIA**

Orain zure aldia da. 2025erako, beste 3.000 babesle behar ditugu, BERRIAren etorkizuna eta independentzia bermatzeko. **Egin zure ekarpena.**

**Urteko ekarpena**
**100€**
(0,27 euro egunean)

**Gazteen* ekarpena**
**30€**
(*) 30 urtetik beherakoak




943-30 43 45 • *Berria.eus/komunitatea*

# Korrika Kulturala

***BADON* opera postdramatikoa izan da 23. KORRIKAren ekitaldi kultural nagusia, KORRIKA-AEK I. Kultur sorkuntzarako bekaren irabazlea izan baita.***

BADON* proiektua opera garaikide bat da. Hausnarketa-ikerketa-sorkuntza prozesu kolektibo eta kolektibizatu baten emaitza, sinergiak eta diziplina arteko zubiak eraikiko dituena.

Formatuari dagokionez, baliabide bisualek (argia, bideoa), zuzeneko musikak (organikoa eta elektroa-kustikoa) bai eta mugimenduak, literaturak eta bertsoek ere osatuko dute BADON* unibertsoa.

Euskal Herriko hamaika txokotan gozatu dute BADON* ikuskizunaz: Gasteiz, Bilbo, Irun, Iruñea, Baiona, Tutera, Oiartzun, Altsasu, Auritz, Arrasate, Hernani, Astigarraga, Andoain, Eibar, Basauri...

**Herriz herri, agenda bete emanaldi!**
Korrika Kulturala AEK-k Euskal Herriari KORRIKAren alde egindako lana eskertzeko jaio zen, kalitate handiko kultur eskaintza zabala trukean




ematearren. Ildo horretatik, herriz herriko ekitaldiak eraman ditugu Kulturalaren agendara. Bertan, Euskal Herrian Korrika Kulturalaren izenean egingo diren ekintza guztiak bilduko dira: https://www.korrika.eus/korrika-kulturala/agenda

Gainera, aurten ere, KORRIKAren webgunean "Menua" izeneko baliabidea txertatu dugu; hau da, Korrika Kulturalaren baitan antola daitezkeen ekintzen katalogoa. Bertan, ehundik gora ikuskizun bildu dira, askotariko diziplinen laginak eta haur zein helduei zuzenduak: esaterako, antzezlanak, bertso-saioak, zirku-tailerrak eta kontzertuak.






EUSKARA,
GURE HELBURU PARTEKATUA

bertako.eus

bertako
igogailuak | ascensores

# KORRIKA bukaera. Baiona (2024-03-24)

## ... eta amaitzeko, Baionan ikusiko dugu elkar



23. KORRIKA Baionan finituko da, martxoaren 24an. Baiona Ttipian eta Handian hiru eszenatoki izanen ditugu, egun guzian euskarazko kontzertuez gozatzeko. Iparraldeko taldeek dute batez ere eguna animatuko, baina ez horiek baizik.

Merkatuko plazan, giro goxoko kontzertuak izanen ditugu, Ibil Bedi-rekin besteak beste; Paul Bert plazako eszena erraldoian, Anje Duhalde eta Xiberoots taldeek, adibidez, gorputzak mugiaraziko dizkigute, eta aho betez kantatzen ahalko dugu; azkenik, Patxa plaza ere profitatuko dugu: tokiaren konfigurazioak eta haren inportantzia historikoak giro berezia sortuko dute; Nakar taldea entzuten ahalko dugu bertan, beste bost kontzerturen artean.

Hiru gune horietan edatekoa eta jatekoa izanen da: tokiko mozkinekin egindako taloak, ogitartekoak edo/eta salda!



Xaho kaian beste gune bat izanen dugu. Eta han jarririk bazkaltzeko parada egonen da: zikiro-jan herrikoia (lekuak, aurre-salmentan). Haurren xokoan, aldiz, animatzaileek haur eta helduentzako aktibitateak proposatuko dizkigute.

Eszenatokiez gain, karrikako animazioek Baionako xokoak euskaraz beteko dituzte arratsalde guzian.

Iparraldeko laguntzaile eta AEKideok buru-belarri ari gara lanean, KORRIKA, euskararen aldeko ekimen lodiena, errezibitzeko berantetsirik. Xauri gustian!

GARBITU
INDUSTRIA GARBIKARIAK
▸BIZKAIA 94 671 48 48
▸GIPUZKOA 648 741 881

Gorosti S. Coop
LORAZAINTZA
Lorategien diseinu eta gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta inausketa
Bidasoa Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 · 68 124 68 98
gorosti@gorostiscl.com

Grupo Noticias Korrikarekin bat
aek 23.korrika
HARRO HERRI
Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra
noticias GRUPO TALDEA



Deia
Diario de Noticias
Gipuzkoa
Diario


euskal
sagardoa
Sidra del País Vasco
JATORRI DEITURA
PREMIUM
ZAPIAIN
AMA
HIZKUNTZA
LURRA
ZAPIAIN®
Euskal Sagardoa
SIDRA NATURAL
ZAPIAIN®
Astigarragako Sagardoa